

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Lehendakariak adierazi du talentua "funtsezkoa" dela gizartea hobetzeko

*Yolanda Barcinak Iruñan 300 pertsonatik gora batzen dituen "Ágora Talentia" Talentuaren III. Nazioarteko Foroa inauguratu du ostegun honetan*

Jueves, 30 de mayo de 2013

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak ostegun honetan adierazi du talentua "funtsezkoa" dela gizartea hobetzeko eta Nafarroako Gobernuak alor horretan egindako apustua errepikatu du; izan ere, esan duenez, "uste osoa dugu pertsonen garapena, haien ideiak eta proiektuak funtsezkoak direla aurrera egiteko eta gure gizartea hobetu dadin lortzeko".

Nolanahi ere, Lehendakariak onartu duenez, "aurrerabidea ez dago eragile sozial bakar baten esku soilik". "Hura lortzeko administrazioek, enpresek, hezitzaileek eta herritarrek elkarrekin lan egin behar dugu, ahaleginak batuz lortuko dugu gizartea hobea izan dadin", azpimarratu du.

Yolanda Barcinak "["Ágora Talentia" Talentuaren III. Nazioarteko Foroa](#)ren inaugurazio-ekitaldian [esku hartu](#) du. Ekitaldia ostegun eta ostiral honetan ospatuko da Iruñeko Baluarte Jauregian, eta bertan 300 lagun baino gehiago bilduko da.

Foroan talentua "giltzarri" modura hausnartuko da, egungo krisi ekonomikotik ateratzeko giltzarri modura. "Benetan espero dut hemen zehazten diren ideiak benetako proiektu bihurtzeko eta proiektu horiek Nafarroaren garapenaren motorra izan daitezen", opa nahi izan du Lehendakariak.

Estatuko eta nazioarteko adituen hitzaldiak barnean hartzen dituen [programa](#) hiru zatitan egituratzen da. Lehenengoa talentu orokorren garapenari buruz ariko da nazioarteko arloan elkarrengaitzeko.

Bigarren zatia talentu sozialean eta sarean oinarrituta dago, teknologia berriak eta haien konektatzeko aukerak sorkuntza aldetik baliatuz; eta hirugarrena, metodologia eta joera berrietan enplegura bideratutako talentua garatzeko. Beste alderdi batzuen artean, ekintzaitza hobetzeko hezkuntza sistematik sustatu behar diren ekimenei buruz eztabaidatuko da

Foroa [Moderna Fundazioak](#) eta [Brain Flow](#) programa europarrak antolatuta dute, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin beste entitate batzuen artean, eta haren inaugurazioan, Barcina Lehendakariarekin batera, Iruñeko alkate Enrique Mayak eta Moderna Fundazioako zuzendari nagusi Cernin Martínezek parte hartu dute.

Agerraldi guztiak bideoaz grabatuko dira eta, kongresua amaitzen

denean, herritarren eskura jarriko dira [Moderna Fundazioaren webgunean](#).